

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARTZINIEGAKO UDALA

Behin betiko onestea Artziniegako La Hormaza SAUR-1 sektorearen urbanizazio proiektua aldatzeko 1. eranskina

Alkatearen irailaren 8ko 187/2018 Dekretuaren bidez, behin betiko onetsi zen Artziniegako La Hormaza SAUR-1 sektorearen urbanizazio proiektua aldatzeko 1. eranskina, zeina Juan Pedro Gorosabel Pando jaunak aurkeztu baitzuen 2018ko maiatzaren 30ean (erregistroko sarrera zk.: 1477), Encina Promociones SL sozietatearen izenean eta ordezkarietan. Aurkeztutako alegazio eta egindako txostenen ondorioz, honako aldaketa eta betebeharrak jasotakoak dira:

LEHENENGOA. Zati batean ezezteko Juan Pedro Gorosabel jaunak 2018ko uztailaren 9an aurkeztutako alegazioa, urbanizazio proiektuaren aldaketa onesteko espedienteari buruzkoa, 2018ko uztailaren 16ko zerbitzu teknikoaren txostenean adierazitako arrazoiengatik.

Alegazioaren 2. atalean zehaztutako aldaketei dagokienez -"oinetzkoen hiru ibilbideen elkar-gunea"-, ez da aldeko txostena egin, gogoeta hauetan oinarrituta:

– "2. atalari dagokionez, 1., 2. eta 3. ibilbideen elkar-gunea proiektuan agertzen dena baino 75 zentimetro gorago egoteari dagokionez, alegia, honakoa jasotako txostenean: egungo egoera jatorrizko proiektuan jasotako ez ziren hainbat elementu legeztatzearen ondorio da, nahiz eta udal lizentzia izan, horien artean 3. ibilbidea; beraz, behar diren jarduerak egin behar dira araudia betetzeko eta izapidetutako urbanizazio proiektuaren aldaketa agirian (UPA) jasotakoak betetzeko.

– Ezingo dira murriztu urbanizazio proiektuaren aldaketan (UPA) jasotako lur eusteak, U4 planoan adierazitakoak.

– UPAn adierazitako maldak ezingo dira inolaz ere handitu: ehuneko 6 1. eta 2. ibilbidean, eta ehuneko 10 3. ibilbidean.

– Euste hormen altura nahikoa izan behar da UPAn U1 planoan zehaztutako hormen kotak betetzen direla bermatzeko, 2. ibilbidearen tarte bat -1. eta 3. ibilbidearekin elkartzen den tokian- eusteko horma berri bat eraiki behar ezingo du aldatu ez 1. ibilbidearen horma ezta SZ-2-5 lurzatiaren lur maila ere. Beraz, 2. puntu horretan hormaren ageriko altuera errespetatu behar da, eta horman lur mailaren kota 214,5 izango da. Euste horma berriaren sakonerak eta funtsak 3. ibilbideko harri lubetaren egonkortasuna bermatu behar dute.

– Oinezkoen ibilbideek apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren "hiri guneen irisgarritasun baldintzak" izeneko II. eranskinean jasotako zehaztapenak bete behar dituzte, eta ez "urbanizazioak eta eraikuntzak zaharberritu, handitu edo eraldatzeko obrak" izeneko V. eranskinean jasotakoak, ez baita zaharberritze obra bat. Edonola ere, 2. ibilbideak bere luzera guztian zehar 2 metroko zabalera duenez, ibilbide guztian zehar neurri hori errespetatu behar da".

BIGARRENA. Zati batean onestea Juan Pedro Gorosabel jaunak 2018ko uztailaren 9an aurkeztutako alegazioak, urbanizazio proiektuaren aldaketa onesteko espedienteari buruzkoak, txosten teknikoan jasotako baldintzekin. Obra amaieraren dokumentazioarekin hauek aurkeztu behar dira: hura zehazteko oin, sekzio eta egitura planoak, EKT-ESaren justifikazioa eta aldaketaren behin betiko aurrekontua.

HIRUGARRENA. Behin betiko onestea La Hormaza SAUR-1 sektorearen urbanizazio proiektua aldatzeko 1. eranskina, zeina Juan Pedro Gorosabel Pando jaunak aurkeztu baitzuen 2018ko

maiatzaren 30ean (erregistroko sarrera zk.: 1477), aurkeztutako alegazio eta egindako txostenetatik eratorritako aldaketa eta betebeharrekin.

LAUGARRENA. Jakinaraztea Ituntze Batzarrari urbanizazio obrek urbanizazio proiektua eta urbanizazio proiektuaren aldaketa bete beharko dutela. Ez dira alegazio aldian aurkeztutako eta ezetsitako aldaketak onartuko, 2018ko uztailaren 16an egindako txosten teknikoan oinarrituta. Txosten hori Juan Pedro Gorosabel jaunari jakinarazi zitzaion 2018ko uztailaren 25ean (erregistroko irteera: 820), eta txostenaren kopia eta erabaki honen jakinarazpena ere bidali zitzaizkion.

BOSGARRENA. Ebazpen hau Juan Pedro Gorosabel Pando jaunari jakinaraztea, La Hormaza SAUR 1 sektoreko Ituntze Batzarrari eta interesdunak diren guztiei.

Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Haren aurka, hilabeteko epean, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke udalbatzari, edo, bestela, bi hilabeteko epean, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke, Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan.

Argitaratu egiten da, dagozkion ondorioak izan ditzan, hirigintza planeamenduaren erregelamenduak 141.4. artikuluan agindutakoa betez.

Artziniega, 2019ko apirilaren 9a

Alkatea

IÑIGO GÓMEZ UNZUETA